



Arartekoaren ebazpena 2011ko abenduaren 26akoa. Beraren bidez, kexa espediente bat amaitzen da, Durango udalerrian zenbait ibilgailu ustez behar ez bezala aparkatzeagatik hasia.

Aurrekariak

1.- Erakunde honetan idazkia jaso genuen 2010eko martxoaren 22an. Idazki horren bidez, pertsona batek azaldu zigun Durangoko Udalak ez ziola erantzun berak egindako esku hartze eskaerari; eskaera horren bidez, zehazki, adierazi zuen herri honetako garaje komunitario baten sarbidean ohikoa dela ibilgailuak gaizki aparkatuta egotea.

Jakinarazi zigun idazki bat aurkeztu zuela, egoera hau azaltzen, udalaren webguneak beren-beregi horretarako eskaintzen duen zerbitzuaren bidez. Idazkiak, ordea, ez zuen erantzunik jaso, eta arazoa ez zen konpondu.

2.-Arartekoak kexa izapidetzea onartu zuen, eta 2010eko maiatzaren 13an Durangoko Udalari eskatu zion erreklamazio egileak azaldu zigun auziari buruzko informazio zehatza eta nahikoa emateko.

3.-Informazio eskaerari ez zigutenez erantzun, urte bereko urriaren 31n errekerimendu bat bidali genion, gauza bera eskatzen. Gero, telefonoz zenbait kudeaketa egin genituen, baina ez genuen emaitza positiborik lortu; halere, udalak telefonoz esan zigun erantzuna jasoko genuela.

Azkenik, 2011ko ekainaren 8an berriro ere udalarengana jo genuen eta haren lankidetzara eskatu genuen. Gaur egun, ordea, ez dugu erantzunik jaso.

Hori guztia kontuan izanik, gure epaitze-parametroekin bat etorritik eta daukagun informazioa kontuan izanik, ondoko gogoetak jakinarazten dizkizut:

Gogoetak

1.- Abiapuntu gisa, esan behar dugu administrazio publiko batengana idatziz jotzen eta jarduketa jakin bat eskatzen duen edozein herritarrek eskubidea duela bide beretik erantzuna jasotzeko, erantzuna baiezkotzat nahiz ezezkotzat izan.

Eskubide hori herritar guztiek beren kontuak ondo administratuak izateko duten eskubidetik ondorioztatzen da. Azken eskubide hori eremu komunitarioan aitortuta dago eta barne antolaketa juridikoan sartuta dago. Hala ondorioztatzen dugu Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura





Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legetik, zioen azalpenean ondokoa dakarrena:

“Lege honen helburua ez da administrazioaren jardun ezari izaera positiboa ematea partikularrek berarengana jotzen dutenean. Administrazioaren jardun ezaren izaera positiboa legearen benetako helburua betetzen ez denean ezartzen den bermea da. Legearen benetako helburua, ordea, herritarrek administrazioaren berariazko erantzuna jaso dezatela eta, batez ere, ezarritako epean jaso dezatela. Administrazioaren isiltasuna, positiboa nahiz negatiboa, ezin da izan ohiko tresna juridikoa. Aitzitik, partikularren eskubideek beren edukia ez galtzeko bermea baino ez da, administrazioak ez dituen azkar eta eraginkortasunez betetzen berari dagozkion funtzioak”.

Arartekoak sarritan salatu du administrazioaren isilbidea oso kaltegarria dela. Izan ere, isilbideak defentsarik gabeko egoeran uzten ditu herritarrak, ez baitakite administrazioak zein borondate duen haien eskaerei buruz eta ezin dute eskatutakoaren erantzuna berrikusi.

- 2.- Horrez guztiaz gain, hau da, herritarrekiko betebeharrak ez betetzeaz gain, salatu behar dugu Durangoko Udalak ez diola erakunde honi lagundu. Udal horrek, ordea, eskatzen zaizkion datu, dokumentu, txosten eta argipen guztiak, lehentasunez eta premiaz, guri emateko legezko betebeharra du (Arartekoaren erakundea sortu eta arautu zuen 3/1985 Legearen 23. artikulua). Laburbilduz, aurrekarietan azaldu dugunaren arabera, udalak erakunde honekin dituen legezko betebeharrak ez ditu bete.
- 3.- Auziaren edukiari dagokionez, kexan azaldu den auzia ibilgailuak bide publikoan aparkatzea arautzen duen araudiaren esparruan kokatu behar da.

Trafikoko sektoreko araudiak udalerriei ematen die hiri bideetan ibilgailuen eta pertsonen trafikoa kontrolatzeko eskumena.

Horrela, Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren gaineko Legeak azaltzen du udalerriei dagokiela beren jabetzako hiri bideetan trafikoa kontrolatzea eta zaintzea, beren agenteen bidez, bide horietan gertatzen diren urraketak salatzea eta haiek zehatzea, beste administrazio bati beren-beregi esleituta ez dagoenean (7. artikulua).

Bestalde, Durangoko Udalaren Trafikoko Udal Ordenantzak, 36. artikuluan, azaltzen da zein kasu eta lekutan dagoen debekatuta aparkatzea. 92. artikuluan, berriz, azaltzen da ordenantzan ezarritako aginduak urratzeagatik zehapenak ezartzea alkate-udalburuaren eskumena dela (edo hark eskuordetzen duen zinegotziarena).

Horregatik, kexaren aurrean udalak ez jarduteak esan nahi du trafikoko sektoreko araudiak eman dizkion eskumenak ez dituela bete.





Erreklamazio hori eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak kontuan izanik, ondoko gogoetak jakinarazten dizkizugu:

Ondorioak

- 1.- Durangoko Udalak kexa egin duen pertsonaren eskaerari erantzun behar dio, legeak hala agintzen baitu.
- 2.- Durangoko Udalak ez dio Arartekoari lagundu.
- 3.- Durangoko Udalak egiaztatu behar du kexa sorrarazi duen egoera benetakoa den eta, benetakoa baldin bada, konpontzeko bideak jarri beharko ditu.
- 4.- Udalaren jarduera eza kontuan izanik, gaiari ondorioen idazki honekin eman behar diogu amaiera, eta interesdunari ezin diogu erantzun arrazoiturik eman. Halere, ebazpen hau ikusita, udalak gai honi buruz egoki deritzen azalpenak eman ahal dizkigu.

